



Familia agurgarriok:

Jakingo duzueenez, ikasturteko lehenengo aste hauetan GELAKO ARAUAK lantzen ibili gara tutoretza saioetan.

Arauak ezartzeko, honako irizpide hauetan oinarritu gara:

- “Elkarbizitza proiektua” dokumentuan oinarritzat hartu dugu.
- Arauak elkarrekin gustura egoteko beharrezkoak direla argi uzten saiatu gara.
- Arau gutxi eta gelako errealitatean oinarrituak aukeratu ditugu.
- Guztion artean sortu ditugu, guztion kontua direlako.
- Esaldiak era positiboan idatzi ditugu, jokabide egokiak erakutsiz eta negatiboak ekidituz.

Irizpide hauek zuentzat ere lagungarri izan daitezelakoan.

Honekin batera ikastolako bizitza hobetzeko asmoz, Elkarbizitza proiektuaren barruan, Behatokian adostutako arauak bidaltzen dizkizuegu.

Tutoreok